

## Lau urte erabakigarri

Hurrengo martxoaren 1ean legegintzaldi berria hasiko da Eusko Jaurlaritzan. Datozen lau urteak erabakigarriak izango dira Euskal Eskola Publikoarentzat eta oso beharrezkoa izango da hainbat gai garrantzitsuren aurrean gure proposamen eta ekarpenak egitea: eskola mapa berria (leku publiko gehiagoren beharrekiko zuzenean loturik dagoena); eredu linguistikoak gaintzea; kultur aniztasunarekiko arreta; eskola materialen dohaintza; ikastetxeetan uneko beharretara moldatutako zuzendaritzak bilatzea; curriculum berriaren ezarpena, etab.

Azken finean, familiek Euskal Eskola Publikoari egin diezaiotegun ekarpena erabakigarria izango da eta IGEek ikastetxeetan eztabaida hauek bideratuko dituztenak izan beharko lukete.

## Euskararen astea

Otsailaren 16tik 27ra aurtengoan bere XII. Edizioa bete duen **Euskararen Astea 2009** burutu da lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

Urtero bezala ekintza hau Denon Eskolatik antolatu da Vitoria-Gasteizko Berritzegunearekin koordinatuz eta aurten inoiz baino parte hartze handiagoa lortu da ikastetxeen aldetik: **Abendaño, Abetxuko, Adurtza, A. Ganivet, L. Guereñu, Arantzabela, Landazuri, L. Elejalde, O. Apraiz, I. Barrutia, Toki Eder, Umandi, Samaniego, Ibaiondo, Ikasbidea, Izarra, Dulantzi y Eltziego.**

Ikasturte honetan landu den gaia "**Euskal Herriko Jaiak eta Musika**" izan da eta Berritzegunetik prestatutako materialak laguntzeko Denon Eskolatik txikientzat ipuin bat, Kaxita Agirrerren "**Lide eta Noskiren betaurreko magikoak**", eta nagusiagoentzat komiki bat, Zirikaren "**Ndéye jaietan**", ekarri dira.



Gainera, Euskararen Astea zehar ikasgelatan burutuko den lanaren osagarri gisa beste ekintza bat programatu du Denon Eskolak ikastetxe bakoitzean. Aurten **Euskal musika tresnen tailerra** burutu da O+hatz taldearen eskutik.

Egun horietan eta aldi berean **Noski** bera, Euskararen Astearen maskota, azaldu da ikastetxeetara trikitixa batekin lagundurik txokoak alaitu eta girotzera.

## Noski-ren antzezlan

Dakizueenez otsailaren 13 eta 27an "**Noski-ren bidaia magikoa**" obraren antzezpeneak programatu dira Iparralde eta Hegoalde gizarte etxeetan hurrenez. Arrakasta erabatekoa izan da 13rako gonbidapenean Denon Eskolaren egoitzan banatzeko ezarritako lehen egunean desagertu baitziren. Hori dela eta 27rako obra birritan antzeztea pentsatu genuen, baina horietan ere gonbidapen bila etorri den jende guztiak ez du lekurik izango. Hori dela eta barkamena eskatu nahi diegu gonbidapenik gabe, eta beraz obra ikusi gabe, gelditu diren pertsona guztiak.

Honen inguruan aurreratu nahi dizuegu obraren antzezpene berriak Arabako eskualde ezberdinetan egiteko aukerak aztertzen ari garela. Jakinarenean gainean izango zaituztegu lekuak eta datak zehazten diren hienean.

## Eskola Jantokiak

EHIGE konfederaziotik, Denon Eskola haren kide izanik, eskola jantokiaren inguruko lan plana abiatuko da eskola jantokiei buruzko proposamen oso bat burutu nahian, ondoren Hezkuntza Sailari aurkeztuko zaiona.

Horretarako modu batean edo bestean eskola jantokietan harremanik duten eragile guztien parte hartzea emango da (gurasoak, IGE federazioak, zuzendaritza taldeak, jantokietako langileak, sindikatuak, elikaduran adituak, merkatari txikiak, nekazarien sindikatuak,...) eta gai ezberdinen inguruan antolatuko diren lan taldeetan banatuko dira edukiak landu eta eztabaidatzeko:

Araudia	Janaria
Funtzionamendua	Espazio hezigarria
Antolakuntza	Lan baldintzak

Lan egutegia prest dagoenean jakinaraziko dizuegu prozesu honetan parte hartzea nahi duzuenok aukera izan dezazuen.

## Euskal Eskola Publikoaren Jaia

EHIGE Konfederazioak antolatutako hurrengo ekainaren 7an, Bergaran, Euskal Eskola Publikoaren Jalaren 18. edizioa ospatuko da "**Obatu Euskal Eskola Publikoari**" leloarekin. Lelo honekin umeak, gazteak eta pertsona helduak Euskal Eskola Publikora heldu nahi ditugu.

Haren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero web gunean lor dezakezue [www.ehige-jaia.org](http://www.ehige-jaia.org)



## agenda

### otsailak 27

#### "Noskiren bidaia magikoa" antzezlan

18:30etan eta 19: 45etan Hegoalde Gizarte Etxean; Vitoria-Gasteiz

### martxoak 4

#### LIBURTZO Batzordea

18:00etan Denon Eskolan

### martxoak 9

#### Denon Eskolaren Zuzendaritza Batzordea

18:30etan Denon Eskolan

### martxoak 10

#### EUSKERA Batzordea

18:30etan Denon Eskolan